

INGENIARITZA ZIBILEKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

***HIRIKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIAREN
DISEINUA ETA DIMENTSIONAKETA NEILAN,
BURGOS***

***10.ERANSKINA- KONTRATUAREN BALDINTZA ADMINISTRATIBO
BEREZIAK.***

Ikaslea: Alba Gallo Anda

Zuzendaria: Maite de Blas Martín

Ikasturtea: 2019-2020

Data: Bilbon, 2020ko otsaila.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
TAULEN AURKIBIDEA.....	2
1.SARRERA	3
2.KONTRATISTAREN SAILKAPENERAKO IRIZPIDEAK.....	4
2.1. 25.Artikulua: OBRA KONTRATISTEN TALDEAK ETA AZPITALDEAK.....	4
2.1.1. Azpitaldetan sailkatzea.	7
2.1.2. Taldetan sailkatzea.	7
2.2. 26.Artikulua: OBRA KONTRATUEN KATEGORIA.	8
2.2.1. Batez besteko urtekoaren kalkulua.	8
3.KONTRATISTAREN SAILKAPENA.	9

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Kontratisten sailkapena.....	10
--	----

1.SARRERA

Kontratuaren baldintza administratibo berezien eranskinaren helburua kontratistaren sailkapena egitea da. Jarraian adierazten diren arauak betearaziz:

- Reglamento General de la Ley de Contratos de la Administraciones Públicas aprobó por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre.
- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 773/2015, de 28 de agosto, por el que se modifican preceptos del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por el Real Decreto 1098/2001.

2.KONTRATISTAREN SAILKAPENERAKO IRIZPIDEAK.

Sektore publikoarekin kontratu bat egiteko, pertsona natural edo juridikoek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Jarduteko gaitasuna eduki behar dute.
- Kontratatzea debekatua ez izatea.
- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa izatea.
- Lanbide-gaitasun edukitzea.

Kontratuaren Baldintza Administratibo Berezien Agirian, lizitaziora aurkezteko kontratistak zein talde, azpitalde eta kategorian sailkatuta egon behar diren agertu behar da.

Jarraian urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, (B.O.E 2001eko urriaren 26a) aurkezten da. Dekretuaren 25.artikuluaren zehazten dira kontratisten sailkapenerako erabiltzen diren taldeak eta azpitaldeak (izaera teknikoa dutenak) eta 26.artikuluaren kontratisten kategoriak (non burutzeko obraren urteko bolumena islatzen den).

2.1. 25.Artikulua: OBRA KONTRATISTEN TALDEAK ETA AZPITALDEAK.

Herri administrazioaren kontratuaren legeriaren 25.artikuluak 11 talde finkatzen ditu, bakoitza azpitaldetan bananduta. Talde batean sailkatutako enpresa batek talde horren azpitaldeetako sailkapena behar duten kontratueta aurkeztu ahalko du.

- **A taldea: Lur-mugimenduak eta zulaketak.**
 1. azpitaldea. Lur-erazketak eta hustuketak.
 2. azpitaldea. Lur-berdinketak.
 3. azpitaldea. Harrobiak.
 4. azpitaldea. Putzuak eta meazuloak.
 5. azpitaldea. Tunelak.
- **B taldea: Zubiak, biaduktuak eta egitura handiak.**
 1. azpitaldea. Fabrikakoak edo masa-hormigoikoak.
 2. azpitaldea. Hormigoi armatukoak.
 3. azpitaldea. Hormigoi aurreatezatuzkoak.
 4. azpitaldea. Metalikoak.

- **C taldea: Eraikuntzak.**

1. azpitaldea. Eraisketak.
2. azpitaldea. Fabrikako edo hormigoizko egiturak.
3. azpitaldea. Egitura metalikoak.
4. azpitaldea. Igeltserotza, emokadurak eta estaltzeak.
5. azpitaldea. Hargintza eta marmolgintza.
6. azpitaldea. Zoladurak eta alikatatuak.
7. azpitaldea. Isolamenduak eta iragazgaizpenak.
8. azpitaldea. Zur-arotzeria .
9. azpitaldea. Metal-arotzeria.

- **D taldea: Trenbideak.**

1. azpitaldea. Trenbideak eraikitzea.
2. azpitaldea. Errail edo kableren gaineko bideak.
3. azpitaldea. Seinaleak eta finkatzea.
4. azpitaldea. Trenbideak elektrifikatzea.
5. azpitaldea. Berezitasunik gabeko trenbide-obrak.

- **E taldea: Lan hidraulikoak**

1. azpitaldea. Hornikuntzak eta saneamendua.
2. azpitaldea. Presak.
3. azpitaldea. Ubideak.
4. azpitaldea. Erretenak eta hustubideak.
5. azpitaldea. Urbazterrak babestea eta bideratzea.
6. azpitaldea. Diametro handiko tutuen bidezko kondukzioak.
7. azpitaldea. Berezitasunik gabeko lan hidraulikoak.

- **F taldea: Itsas lanak.**

1. azpitaldea. Dragatzeak.
2. azpitaldea. Harri-lubetak.
3. azpitaldea. Hormigoizko blokeen bidez.
4. azpitaldea. Hormigoi armatuzko kaxen bidez.

5. azpitaldea. Pilote eta zutoin-oholen bidez.
 6. azpitaldea. Itsasargiak, irrati-faroak eta itsas seinaleak.
 7. azpitaldea. Berezitasunik gabeko itsas lanak.
 8. azpitaldea. Itsaspeko hustubideak.
- **G taldea: Bideak eta pistak.**
 1. azpitaldea. Autobideak eta autobiak.
 2. azpitaldea. Lurreratzeko pistak.
 3. azpitaldea. Hormigoi hidraulikoren bidezkoak.
 4. azpitaldea. Nahaste bituminosoren bidezkoak.
 5. azpitaldea. Bide-seinale eta -balizak.
 6. azpitaldea. Berezitasunik gabeko bide-lanak.
 - **H taldea: Gas- eta petrolio-ekoizkinen garraioa.**
 1. azpitaldea. Oliobideak.
 2. azpitaldea. Gasbideak.
 - **I taldea: Instalazio elektrikoak.**
 1. azpitaldea. Argiak, argiztapena eta argi-balizak.
 2. azpitaldea. Energia sortzeko zentralak.
 3. azpitaldea. Elektrizitatea garraiatzeko lineak.
 4. azpitaldea. Azpiestazioak.
 5. azpitaldea. Goi-tentsioko transformazio eta banaketa zentroak.
 6. azpitaldea. Behe-tentsioko banaketa.
 7. azpitaldea. Telekomunikazioak eta irrati-instalazioak.
 8. azpitaldea. Elektronika-instalazioak.
 9. azpitaldea. Berezitasunik gabeko instalazio elektrikoak.

- **J taldea: Instalazio mekanikoak.**

1. azpitaldea. Jasotzeko edo garraiatzeko instalazioak.
2. azpitaldea. Aireztatze- berotze- eta girotze-instalazioak.
3. azpitaldea. Hozteko instalazioak.
4. azpitaldea. Iturgintza- eta osasun-instalazioak.
5. azpitaldea. Berezitasunik gabeko instalazio mekanikoak.

- **K taldea: Bereziak.**

1. azpitaldea. Zimendatze bereziak.
2. azpitaldea. Zundaketak, injekzioak eta pilotajeak.
3. azpitaldea. Zutoin-oholak jartzea.
4. azpitaldea. Pinturak eta metalizazioak.
5. azpitaldea. Apaindurak eta dekorazioak.
6. azpitaldea. Lorezaintza eta landatzeak.
7. azpitaldea. Historia eta arte ondasun higiezin zaharberrikuntza.
8. azpitaldea. Ur-tratamenduko estazioak.
9. azpitaldea. Suteen kontrako instalazioak.

2.1.1. Azpitaldetan sailkatzea.

Kontratista batek, azpitalde batean sailkatua egoteko, baldintza hauetako bat bete behar du:

- Azken hamar urteetan *azpitaldeko* lan espezifikokoak burutu izana.
- Talde bereko *kideko azpitaldeko* lanak gauzatu izana azken hamar urteetan. Kideko azpitaldetzat antzeko ekipo eta gauzatze-modua behar duen azpitaldea hartuko da.
- Azken hamar urteetan talde bereko azpitaldeko obrak egin izana (*konplexutasun handiago* eta *ekipo garrantzitsuagoak* behar dituzten azpitaldeen obrak).
- Nahiz eta azken hamar urteetan azpitalde horretako obra espezifikorik burutu ez, azpitaldeko obrak burutzeko finantza-baliabide, langile trebatu eta makineria eta ekipoak dituela egiaztatzen badu.

2.1.2. Taldetan sailkatzea.

Kontratista, talde batean sailkatua izateko, talde horren oinarritzko azpitalde guztietan egon behar da sailkatuta.

2.2. 26.Artikulua: OBRA KONTRATUEN KATEGORIA.

Obra kontratuen kategoria, kontratuaren batezbesteko urtekoaren arabera finkatuko da.

- **a) Kategoria:** Batezbesteko urtekoa ≤ 60.000 €
- **b) Kategoria:** 60.000 € \leq Batezbesteko urtekoa ≤ 120.000 €
- **c) Kategoria:** 120.000 € \leq Batezbesteko urtekoa ≤ 360.000 €
- **d) Kategoria:** 360.000 € \leq Batezbesteko urtekoa ≤ 840.000 €
- **e) Kategoria:** 840.000 € \leq Batezbesteko urtekoa $\leq 2.400.000$ €
- **f) Kategoria:** Batezbesteko urtekoa $\geq 2.400.000$ €

e) eta f) kategoriak ez dira H,I,J,K taldeetan eta hauen azpitaldeetan aplikagarriak izango, hauen kategoria maximoa d) delako.

2.2.1. Batez besteko urtekoaren kalkulua.

Urteko batz bestekoa kalkulatzeko ondorengo formula erabiliko da:

$$\text{Urteko batezbestekoa} = \text{Kontratuaren aurrekontua} \cdot \frac{\text{Exekuzio epea}}{12}$$

3.KONTRATISTAREN SAILKAPENA.

Aurreko irizpideak jarraituz proiektatutako obra ondorengo jardura, talde, azpitalde eta kategorietan banatuta geratzen da:

- **Lur-mugimenduak:** Hustubidearen lubakia eta honen betegarriak, erregistro putzuak, araztegia kokatzeko zelaigunea eta lur soberakinen garraioa.

$$\text{Urteko batezbestekoa} = 29.950,71 \cdot \frac{3}{12} = 7.487,68$$

- Taldea: A
- Azpitaldea: 1, 2 eta 4.
- Kategoría: a

- **Kolektorea eta hustubidea:** Sarrera kolektorea, araztutako uraren hustubidea eta araztegiaren eroanbideak.

$$\text{Urteko batezbestekoa} = 21.235,29 \cdot \frac{3}{12} = 5.308,82$$

- Taldea: E
- Azpitaldea: 1 eta 4
- Kategoría: a

- **Aurretratamenduaren ubidea:** Aurretratamenduaren gailuak kokatzeko ubidearen eraikuntza.

$$\text{Urteko batezbestekoa} = 450,60 \cdot \frac{3}{12} = 112,65$$

- Taldea: E
- Azpitaldea: 3
- Kategoría: a

- **Hiriko hondakin-uren araztegia:** Hondakin-uren arazketa aurrera eramateko eta sortzen diren lohiak tratatzeko gailuak.

$$\text{Urteko batezbestekoa} = 220.208,24 \cdot \frac{3}{12} = 55.052,06$$

- Taldea: K
- Azpitaldea: 8
- Kategoría: a

- **Urbanizazioa eta araztegiaren itxiera:**

$$\text{Urteko batezbestekoa} = 18.496,36 \cdot \frac{3}{12} = 4.624,09$$

- Taldea: C
- Azpitaldea: 2
- Kategoría: a

Laburbilduz, kontratistak hurrengo sailkapena izan behar du:

JARDUERA	TALDE	AZPITALDE	URTEKO BATAZBESTEKOA	KATEGORIA
Lur-mugimenduak	A	1,2,4	29.950,71	a
Kolektorea eta hustubidea	E	1,4	21.234,29	a
Aurretratamenduaren ubidea	E	3	450,60	a
Hiriko hondakin-uren araztegia	K	8	220.208,24	a
Urbanizazioa eta araztegiaren itxiera	C	2	18.496,36	a

1. Taula: Kontratisten sailkapena.